


2. PRAKTIKA

Web Orrialde Estatikoak



Universidad del País Vasco Euskal Herriko Unibertsitatea

OCW 2015

UPV/EHU

ZERBITZU TELEMATIKO AURRERATUAK: 2. PRAKTIKA



Copyright © 2015 Mainer Huarte Arrayago, Gorka Prieto Agujeta, Jasone Astorga Burgo, Nerea Toledo Gandarias

ZERBITZU TELEMATIKO AURRERATUAK: 2. PRAKTIKA lana, Mainer Huartek, Gorka Prietok, Jasone Astorga Burgok eta Nerea Toledo Gandariasek egin, Creative Commons-en Attribution-Share Alike 3.0 Unported License baimenaren menpe dago. Baimen horren kopia bat ikusteko, <http://creativecommons.org/licenses/by-sa/3.0/> webgunea bisitatu edo gutun bat bidali ondoko helbidera: Creative Commons, 171 2nd Street, Suite 300, San Francisco, California, 94105, USA.

Lan hau beste honen eratorria da: Mainer Huarte Arrayago, Gorka Prieto Agujeta, "Servicios Telemáticos Avanzados: Práctica 2 - Páginas Web Estáticas", OCW UPV/EHU 2014 (ISSN 2255-2316), 2014

ZERBITZU TELEMATIKO AURRERATUAK: 2. PRAKTIKA by Mainer Huarte, Gorka Prieto, Jasone Astorga Burgo and Nerea Toledo Gandarias is licensed under a Creative Commons Attribution-Share Alike 3.0 Unported License. To view a copy of this license, visit <http://creativecommons.org/licenses/by-sa/3.0/> or, send a letter to Creative Commons, 171 2nd Street, Suite 300, San Francisco, California, 94105, USA.

This is a derivative work from: Mainer Huarte Arrayago, Gorka Prieto Agujeta, "Servicios Telemáticos Avanzados: Práctica 2 - Páginas Web Estáticas" OCW UPV/EHU 2014 (ISSN 2255-2316), 2014

AURKIBIDEA

| | | |
|---|---------------|---|
| 1 | Helburua..... | 5 |
| 2 | HTML..... | 5 |
| 3 | CSS..... | 5 |
| 4 | Apache..... | 6 |

2. PRAKTIKA: Web Orrialde Estatikoak

1 Helburua

Praktika honetan WWW zerbitzu baten oinarriko elementuekin egingo da lan eta beste praktika guztien oinarria izango da. Zehazki, Internet bidez erosketak egiteko zerbitzu bat inplementatuko da. Praktika hau aurrekoan egindako Makina Birtualean egin beharko da.

2 HTML

Bi HTML¹ orrialde sortuko ditugu, bata erosketaren zerbitzuaren erabiltzailearentzat (**erabiltzailea.html**) eta bestea berriz dendako administrariarentzat (**administraria.html**).

1. Web orrialde estatiko hauek idazteko, Eclipse IDEaren HTML editorea erabiliko dugu, horrela, beste praktiketan erabiliko dugun garapen-ingurunea ezagutzen hasiko garelarik. Horretarako, Eclipseen **Static Web Project** bat sortzen dugu, eta bertan HTML orrialdeak eta CSS estilo-orriak gehitu, ondoren adierazi bezala.
2. Garatzen ari garen orrialdeen itxura jakiteko, oraingoz sistema eragileko fitxategien esploratzailea erabiliko dugu, proiektuaren **WebContent** karpetera nabigatuta eta dagokion HTML fitxategia irekita.
3. **WebContent** karpetan, HTML orrialde bat sortu erabiltzaileari ongietorria ematen diona (**h1**) eta taula moduan salgai dauden produktuen zerrenda bat bistaratzen diona, erreferentzia zenbakia, produktu mota (liburua, elektronikoa, etab.), deskribapena eta prezioaren informazioarekin.
4. Sortu beste HTML orrialde bat, administrariari ongietorria ematen diona (**h1**) eta formulario bat bistaratzen diona produktu berri baten alta emateko, mota, deskribapena eta prezioa eskatuz.
 - Formularioak POST metodoa erabiliko du eta oraingoz jasotako datuak eposta helbide batera bidaliko ditu. Ondoren, jasotako mezuan zer bidali zaigun egiaztatuko dugu.
 - Formularioko eremu guztiei izen bat esleitu behar zaie, aurrerago erabili ahal izateko.
 - Gainera, mota adierazten duen eremua menu zabalgarri bat izango da, aukera posibleak adierazten dituena, erabiltzaileak horietako bat bakarrik adierazi ahal izateko.
 - Formularioak bidalketa botoia eta reset botoia eduki beharko ditu.

3 CSS

Gure webguneko HTML orrialde guztiei itxura "korporatiboa" emango diegu. Horretarako CSS erabiliko dugu fitxategi berezi batean (**estiloa.css**).

1. Sortu CSS fitxategi bat eta aurreko atalean idatzitako bi orrialdeetan erreferentziatu.
2. CSSan h1 testu guztiak erdiratuta egon daitezela adierazi.

¹ <http://www.w3schools.com/>

3. CSSan taulen ertza 1px tamainakoa eta berde kolorekoa izango dela adierazi. Gainera, tauletako buruetan testua zuria izango da eta fondoko kolorea berriz berdea.

4 Apache

Orain arte orrialdeak garapenerako makinan daude eta ezin dira internet bidez atzitu. Atal honetan, Apache zerbitzaria erabiliko dugu, jadanik aurreko praktikan instalatu genuena, gure orrialdea urruneko bezeroei (Internet darabiltenei) erabilgarri jartzeko.

1. DocumentRoot kokalekuan bi karpeta sortu, bata erabiltzaileen orrialdeetarako eta bestea administratzaileentzako orrialdeetarako. Erabiltzaileen karpetan, `erabiltzailea.html` orrialdea argitaratu eta administratzaileentzakoan, `administraria.html`.
2. Oraingoan web nabigatzaile bat erabilia, bi orrialdeok eskatu HTTP erabiliaz. Apacheren log fitxategiak egiaztatu (`/var/log/apache2` karpetan daudenak).
3. Ondoren, atzipen-kontrol bat sortu, administratzaileentzako orrialdeak bi administrari erabiltzaileentzat bakarrik egon daitezen eskuragarri. Horretarako, alde batetik administrari erabiltzaile horiek Apacheren `htpasswd` aginduarekin sortu eta bestetik, dagokion Apacheren konfigurazio-fitxategia aldatu². Gogoratu, konfigurazio fitxategiak aldatu ondoren, Apache berriro abiatu behar dela.
4. Azkenik, webgune osoa sistema eragileko erabiltzailearen `public_html` karpetara mugitu, eta atzipen-kontrolaren konfigurazioa `.htaccess` fitxategi batekin egin.

Hurrengo praktiketan Apache erabili ahalko dugu ala ez, horregatik, makina hasten den bakoitzean ere automatikoki hastea desaktibatuko dugu, behar dugunean bakarrik hasiko dugularik. Hau bi modutara egin dezakegu:

- Zuzenean, `/etc/rcX.d` karpetan `/etc/init.d/apache2` elementura apuntatzen duten lotura sinboliko guztiak ezabatu.
- `rcconf` agindua erabilia (root moduan).

2 <http://httpd.apache.org/docs/2.4/howto/auth.html>